PARTAIDEARENTZAKO FUNTSEZKO DATUAK

CAJA LABORAL 2030 PENTSIO PLANA

Arrisku-adierazlea eta likidezia-alertak, EC/2316/2015 Aginduaren arabera

Produktuaren sailkapena, finantza-produktuen informazioari eta sailkapenari buruzko 2015eko azaroaren 4ko EC/2316/2015 Aginduaren arabera

Arrisku-profila

1	2	3	4	**5**	6	7

Datu horrek planaren arriskua adierazten du eta datu simulatuetan oinarrituta kalkulatu da. Hala ere, litekeena da planaren etorkizuneko arrisku-profilaren adierazle fidagarria ez izatea. Gainera, ez da ziurtatzen kategoria hori denborarekin aldatuko ez denik.

LIKIDEZIARI BURUZKO ABISUAK (X batez adierazten dira, hala dagokion kasuetan)

X	Prestazioen kobrantza edo erreskate-eskubidea erabiltzeko, nahitaezkoa da pentsio-planen eta -fondoen araudian araututako kontingentziaren bat edo aparteko likidezia-suposamenduren bat gertatzea.
X	Mugitzeko eskubideen, prestazioen eta aparteko likidezia-suposamenduen balioa pentsio-fondoaren aktiboek merkatuan duten balioaren menpe dago eta galera garrantzitsuak eragin ditzake.

- Pentsio planek erretiroa, biziraupena, lanerako ezintasun iraunkorra, mendekotasuna eta heriotza direla eta prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea eta ekarpenak egiteko betebeharra zehazten dituzte beren titularrentzat.

- Pentsio Planaren datuak: "Caja Laboral 2030" Sistema Indibidualeko Pentsio Plana. APFZN zk.: **N5064.**

- Pentsio Fondoaren datuak: Caja Laboral 2030 Pentsio Fondoa. Sistema pertsonala. APFZN zk.: **F2028.**

- Planaren entitate sustatzailearen datuak: Caja Laboral Pensiones SA GFP, José María Arizmendiarrieta pasealekua, zk.g. 20500 Arrasate (Gipuzkoa). APFZN zk.: G0217.

- Pentsio Fondoaren entitate gestorearen datuak: Caja Laboral Pensiones SA GFP, José María Arizmendiarrieta pasealekua, zk.g. 20500 Arrasate (Gipuzkoa). APFZN zk.: **G0217.**

- Pentsio Fondoaren entitate gordailuzain eta merkaturatzailearen datuak: Caja Laboral Popular Coop. de Crédito, José María Arizmendiarrieta pasealekua, zk.g. 20500 Arrasate (Gipuzkoa). APFZN zk.: D0194. Gipuzkoako Merkataritza Erregistroa: 2253 liburukia, 0 liburua, 65

folioa, SS-31616 orria, 1. Inskripzioa. Espainiako Bankua: 3035. IFK: F-75076935.

- Laboral Kutxa, fondoaren Entitate Gordailuzaina, Entitate Kudeatzailearen bazkide bakarra da eta, indarreko araudiak betez, bi entitateen artean jarduerak bereizteko irizpideak ezarri dira.

Caja Laboral Pensiones SA GFPk kontratua sinatu du Caja Laboral Gestión SA SGIICrekin, eta horren bidez Caja Laboral Gestión SA SGIIC arduratzen da pentsio-funtsen finantza-aktiboak kudeatzeaz.

- Inbertsio-politikaren deskribapena: Gehienez ondarearen % 40 Europako eta amerikako errenta aldakorrean inbertitzen du. Gainerakoa zor publikoan inbertitzen du eta zorroaren batez besteko iraunaldia 0 eta 15 urte bitartekoa da.

Besteak beste, honako hauek jar dezakete arriskuan inbertsioen jasangarritasuna: jaulkitzaile-motak, jarduera-sektoreak eta kokapen geografikoak. Gauzak horrela, jasangarritasun-arrisku handieneko inbertsioek azpiko aktiboen prezioa murritzarazi dezakete, eta, horren ondorioz, eragin kaltegarria izan dezakete haien balioan.

Erakunde kudeatzaileak ez ditu kontuan hartzen fondoaren inbertsio-erabakiek jasangarritasun-faktoreetan izan dezaketen eragin kaltegarria, oraindik ez baitu eskuragarri horretarako behar duen informazio egokia. Hori dela eta, ezin du ebaluatu inbertsio-erabakiek jasangarritasun-faktoreetan izan dezaketen eragin negatiboa. Horrez gain, erakunde kudeatzailea ez dago beharturik hori egitera, Zabalkundearen Erregelamenduan ezarritakoaren arabera (2019/2088 (EB) Erregelamendua).

Plana kudeatzeko metodologiari esker, bermatu egiten da jasangarritasun-arriskuen edota ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-arriskuen informazio-iturri guztiak aztertu eta baloratuko direla, ohiko finantza-azterketa egiteaz gain, eta inbertsio-erabakiak hartu aurretik. Datu-hornitzaile espezializatuak dira informazio hori emateko iturri nagusiak.

- Pentsio-planaren arrisku-maila: Oso handia.

- PENTSIO PLANAREN ERRENTAGARRITASUN HISTORIKOAK

Período	Rentabilidad neta	Total Gastos
Trimestre 2	5,25%	
Acumulado año 2026	3,12%	
Año 2025	6,79%	
Ultimos 3 años	8,64%	
Ultimos 5 años	3,14%	
Ultimos 10 años	3,32%	

• Pentsio-plan indibidualek ez dute inolako errentagarritasunik bermatzen eta galerak ere izan ditzakete.

• Komisio aplikagarriak:

Gestio-komisioa: % 1,10
Gordailuzain-komisioa: % 0,10

• Beste gastu batzuk: Pentsio-fondoak bere gain hartuko ditu bere funtzionamendurako ezinbestean sortzen diren gastu korronteak (ikuskaritza, merkataritza-erregistroa…). Hiru hilean behin jasoko duzun informazioan, gastu horiek fondoaren ondarearen gainean hartzen duten ehunekoaren berri emango dizute.

• Entitate Kudeatzaileak bere Jokaera Araubidean jasotako prozedurak ezari ditu interes-gatazkak ekiditeko eta lotutako eragiketak Erakundearen mesedean soilik eta merkatuko baldintza berdinetan edo hobeagoetan egiten direla bermatzeko.Informazio hau https://www.laboralkutxa.com/pdf/planes/OpVinculadasRICCLPensionesEus.pdf helbidean dago eskuragai.

• Eskubide kontsolidatuak ez dira itzuliko jarraian adierazten diren kontingentzia edo salbuespenezko suposamenduak gertatu arte:

- Partaideak Gizarte Segurantzan erretiroa hartzea. Partaideak ez badu Gizarte Segurantzan sartzerik, erretiroa 65 urterekin hartu duela ulertuko da.
- Partaideak ohiko lanbidean jarduteko erabateko ezintasun iraunkorra, lan guztietan jarduteko ezintasun iraunkor absolutua edo ezintasun handia izatea, Gizarte Segurantzaren barruan dagokion erregimenaren arabera.
- Partaidearen edo onuradunaren heriotza.
- Mendekotasuna.

Partaide batek erretiroa hartzerik ez badu, kontingentziaren abiapuntua 65 urteko adina izango da, partaideak lana edo lanbidea uzten duenean eta erretiroagatik Gizarte Segurantzako inongo erregimenetan ere kotizatzen ez duenean.

Erretiroa hartu ondoren, partaideak pentsio-planean ekarpenak egiten jarraitu ahal izango du. Hala ere, erretiro-prestazioa kobratzen hasten denean, ekarpenak heriotzaren eta mendekotasunaren kontingentzietarako baino ezingo ditu egin.

Lanerako ezintasunaren kontingentzia gertatzen bada, partaideak pentsio-planean ekarpenak egiten jarraitu eta geroago ezintasun-prestazioa kobratzeko eskatu ahalko du. Ezintasun iraunkorragatik pentsio-planaren prestazioak jasotzen dituen onuradunak pentsio-planean ekarpenak egiten jarraitu ahalko du beste edozein kontingentziatarako, bai dagokion prestazioa osorik jasotakoan, bai kobrantza eten eta geldikina beste kontingentzia batzuetarako utzita. Beste horrenbeste gertatzen da mendekotasun-kontingentziarekin.

• Salbuespenez eta legeria aplikagarrian aurreikusitako termino eta baldintzekin, gaixotasun larriaren edo iraupen luzeko langabeziaren kasuetan ere jaso ahalko du partaideak bere eskubide kontsolidatuen zenbatekoa.

• 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, gutxienez hamar urteko antzinatasuna duten ekarpenei dagozkien eskubide kontsolidatuen zenbateko osoa edo zati bat erabili ahal izango dute aldez aurretik partaideek.

• Prestazioak kapital gisa (ordainketa bakarra), errenta gisa (ondoz ondoko ordainketak), era mistoan edo aldizkakotasun erregularrik gabe kobratu ahalko dira.

• Pentsio-planaren onuradunak edo haren legezko ordezkariak, prestazioa eskatzean, nola kobratu nahi duen adierazi eta dokumentazio egiaztagarria aurkeztu beharko du, zehaztapenetan aurreikusitakoaren arabera. Prestazioaren zenbatekoa bat etorriko da ordainketa-datako eskubide kontsolidatuen zenbatekoarekin. Partaide bakoitzaren eskubide kontsolidatuak honako hauek dira: egindako ekarpenen araberako Kapitalizazio Fondoaren kuota partea gehi beste plan batzuetako eskubide kontsolidatuak gehi inbertsioen emaitzak ken sortutako gastuak eta galerak.

• Kontratuari aplikatzekoa den legeria: 1/2002 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, Pentsio Planak eta Fondoak arautzen dituen Legearen testu bategina onartzen duena, eta 304/2004 Errege Dekretua, otsailaren 20koa, horren araudia onartzen duena.

• Zerga-araudi aplikagarria: Pertsona Fisikoen Errentaren Gaineko Zergaren Legea.

Egindako ekarpenak PFEZren zerga-oinarria txikitzeko erabil daitezke, lurralde bakoitzean ezarritako mugaren arabera.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, erretiroa hartu eta hurrengo urtetik aurrera ekarpenak ezingo dira oinarria txikitzeko erabili. EAEn 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, zerga-erregimen berria egongo da indarrean. Ekarpenei dagokien zatia laneko irabazi moduan aitortuko da, eta % 30 txikitu ahal izango da, baldin eta kontingentzia bakoitzeko kapital gisa jasotako lehen prestazioa bada eta lehen ekarpenetik bi urte baino gehiago igaro badira (% 70eko integrazioa, 300.000 eurora arte; gainerakoan, % 100ekoa). Lortutako errentagarritasunari dagokion prestazioaren zatia —jasotako zenbatekoaren eta egindako ekarpenen arteko diferentzia positiboa— kapital higigarriaren etekin moduan aitortuko da, aurrezkiaren zerga-oinarrian, eta horretan murrizketarik gabe integratuko da. 2025eko abenduaren 31ra arte egindako ekarpenak: Zerga-erregimen berria (aurreko puntua) edo 2025eko abenduaren 31n indarrean zegoena aukeratu ahal izango da. Aurreko zerga-erregimenaren arabera, jasotako zenbateko guztia lan-etekintzat hartzen da, eta murrizketa, baldin badago, erreskatatutako zenbatekoaren % 40koa da.

Nafarroan, 2017-12-31 baino lehen egindako ekarpenei dagokien zatiagatik soilik egongo da murrizketarako eskubidea, betiere kontingentzia gertatu eta 2 urteko epearen barruan eskatzen bada kobrantza, baliaezintasunaren kontingentziaren kasuan izan ezik. Lurralde horretan, % 50eko murrizketa dagokio kontingentzia horri, eta murrizketa ez dago legezko epeen mende.

Estatuko gainerako lurraldeetan, 2006-12-31 baino lehen egindako ekarpenei dagokien zatiagatik soilik egongo da murrizketarako eskubidea, betiere kontingentzia gertatu eta 2 urteko epearen barruan eskatzen bada kobrantza. Pentsio-plan indibidualetarako ekarpenen gehieneko muga: 1.500 euro.

Partaideak ekarpen-muga hori betetzen ez badu, eta mugaz gaineko ekarpena hurrengo urteko ekainaren 30a baino lehen kentzen ez badu, gehiegizko ekarpenaren % 50eko isuna ezarriko zaio. Horrez gain, gehiegizko ekarpena kendu ahalko zaio dagokion pentsio-planetik. Zigor hori ekarpena egin duenari ezarriko zaio, partaidea izan edo ez. Halere, partaidea zigorretik libratuko da gehiegizko ekarpena bere baimenik gabe egin bada.

- Pentsio-plana mobilizatzea.

  Partaideak bere eskubide kontsolidatuak beste plan batera mobilizatzeko eskatu ahalko du. Mobilizazioaren zenbatekoa bat etorriko da partaideak ordainketa-egunean dituen eskubide kontsolidatuen zenbatekoarekin, eta jarraian adierazten diren epeetan gauzatuko da.

  Helburu-entitate gestoreak intsuldaketa egiteko beharrezko dokumentazioa jasotzen duenetik gehienez bi egun balioduneko epean eskatu beharko dio sorburu-entitate gestoreari eskubideak intsuldatzeko. Sorburu-entitate gestoreak eskaera jasotzen duenetik gehienez bost egun balioduneko epean banku-transferentzia agindu beharko du. Sorburu-entitate gestorea eta helburu-entitate gestorea entitate bera badira, partaideak eskaera aurkezten duenetik gehienez hiru egun balioduneko epean egin beharko du intsuldaketa.

- Mobilizazioetan eta kobrantza partzialetan aplikatu beharreko irizpideak

  Mobilizazio partzialen kasuetan, aurrenik eskualdatuko diren ekarpenak aspaldikoenak izango dira. Kobrantza partziala denean ere, irizpide bera aplikatuko da.

- Eguneratutako agiri hau eta fondoaren inbertsio-politikaren adierazpena webgune honetan kontsultatu ahal duzu: www.laboralkutxa.com.